

Euskal AEko 15 urte edo gehiagoko pertsonen erdiak Internet erabiltzen du

15 urtetik 24ra bitarteko gazteen hamarretik bederatzik erabiltzen du


Eustaten datuen arabera, Euskal AEko 14 urte edo gehiagoko Interneten erabiltzaileak 908.700 izan dira 2008ko bigarren hiruhilekoan, hau da, adin horretako Euskal AE osoko %49,3. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean %4,1eko hazkundera da.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan igo da gehien erabiltzaile-kopurua, %7,5 hain zuzen ere, 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Interneten erabiltzaileen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian jarri da, %50,2rekin. Araban %5 izan da hazkundera eta azken hiru hiletan %49,7 izan da erabiltzaileen ehunekoa. Bizkaian %1,9 izan da hazkundera eta 15 urte baino gehiagoko biztanleriaren %48,7k erabiltzen du Internet.

15 urtetik 24ra bitarteko gazteen hamarretik bederatzik Interneten erabiltzaileak dira

Adinaren arabera, 15-24 urte bitarteko gazteen %91k erabili du Internet azken hiru hiletan, 2007ko laugarren hiruhilekoan baino %1,2 gutxiago. Nabarmenezkoa 55-64 urtekoen artean %38 hazi dela erabiltzaile kopurua. Halere adin-tarte horietako erabiltzaile kopuru absolutua baxua da, guztirakoaren %4,5.

1. grafikoa. 15 urte eta gehiagoko biztanleen bilakaera, etxean IKT hornikuntzetarako sarbidearen arabera, hiruhilekoei jarraiki. 1999-2008. %



Iturria: EUSTAT

Handitu egin da generoen arteko aldea Interneten erabiltzaileen artean

Generoen arteko aldea ehuneko 6,2 puntura murriztu zen 2007ko laugarren hiruhilekoan, eta 2008ko bigarrenean ehuneko 7,1 puntutara handitu da. 15 urte eta gehiagoko biztanleei dagokienez, Interneteko erabiltzaileak gizonezkoen %53 dira eta emakumezkoen %45,9 2008ko bigarren hiruhilekoan, Interneteko erabiltzaile guztien artean, %52 gizonak izan dira eta %48 emakumeak.

Jardueraren arabera, ikasleen arteko %96,3k erabiltzen du Internet; pertsona okupatuen artean, %66,9k, eta ez-aktiboen eta langabetuen artean %16,7k. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean hazkunderik handiena, %9,8, ez-aktiboen eta langabetuen artean izan da; okupatuen artean %4,4 hazi da eta ikasleen artean %-1,9 jaitsi.

Internautak, batez ere, etxetik bertatik konektatzen dira

Bestalde, etxetik bertatik egindako konexioak ehuneko 2,2 puntuz hazi dira; erabiltzaileen %82k baino gehiagok etxetik egiten du konexioa. Aitzitik, ehuneko puntu batez murriztu dira ikasketa-zentrotik egindako konexioak eta 3,7 puntuz beste lekuetatik –ziberkafeetatik, liburutegietatik-egindakoak.

Interneten dabilzanen artean bostetik bat euskaraz aritzen da

Ingeleseaz nabigatzen duten erabiltzaileen ehunekoa %5,5 murriztu da. Euskaraz nabigatzen dutenen ehunekoak %2,5eko gorakada izan du eta gaztelaniaz nabigatzen dutenenak %3,6koa. Interneteko konexioen batez besteko iraupena 45,6 minutukoa izan da 2008ko bigarren hiruhilekoan. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean 4,5 minutuz luzeagoa izan da.

Azken hiruhilekoan, Interneten bidez, 24.100 pertsona gutxiagok erosi dute produktu edo zerbitzuren bat

Internet bidez erosi duten 14 urte baino gehiagoko pertsonen kopuruak ehuneko 3,7 puntuko jaitsiera izan du. 2008ko bigarren hiruhilekoan 24.100 pertsona gutxiagok erabili dute Internet erosteko. Guztira, 215.300 izan dira sarearen bidez erosketaren bat egin dutenak.

IKT hornikuntzetarako sarbideak gorantz jarraitzen du euskal familia-etxeetan

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduek hedatzen jarraitzen dute gure familia-etxeetan. 2008ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko etxeen %57,1ek ordenagailua zuten; 2007ko laugarren hiruhilekoan baino %3,6 gehiago, eta aurreko urteko hiruhileko berean baino %7,5 gehiago.

Interneterako sarbideari dagokionez 393.000 familia pasatxo dira, %47,5, etxean zerbitzu hori dutenak. 2008ko lehenengo sei hilekoan Interneteko konexioa 28.000 familia berri gehiagok (%7,7) izan dute; aurreko urteko hiruhileko berean baino %13,5 gehiago. Era berean, sarera sarbidea duten 14 urte baino gehiagoko biztanleen kopuruak gora egin du 42.500 pertsonarekin, hau da, ehuneko 2,3 puntuz igo da. Etxean Internet erabiltzeko aukera duten pertsonen kopurua milioitik gora joan da.

Familia-etxeetako %88an sakelako telefonoren bat dago. 14 urte baino gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, sakelakoa duten pertsonen ehunekoa %92,7raino igotzen da.

1. taula. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI), familiak

ETXEKO HORNIKUNTZAK	2008ko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza, 2007ko 4. Hiruhilekoarekiko		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Milakoak	%	Milakoak * ALD., % P		Milakoak * ALD., % P.	
FAMILIAK	827,9	100,0				
Ordenagailu pertsonala	472,4	57,1	16,5	0,1	33,0	2,0
Telefono mugikorra	728,7	88,0	25,1	0,0	35,5	1,1
Internet	393,1	47,5	28,0	1,8	46,9	4,1
Seme-alabadunak	296,3	68,9	14,8	3,2	26,5	5,9
Bikotearekin bakarrik	54,9	30,5	5,9	1,5	9,0	3,4
Bakarrik bizi diren banakoak	41,9	19,2	7,3	2,0	11,4	4,0
15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.843,0	100,0				
Ordenagailu pertsonala	1.225,2	66,5	6,8	0,3	36,2	1,8
Internet	1.037,5	56,3	42,5	2,3	75,3	4,0
Lurreko telebista digitala	430,4	23,4	82,8	4,5	131,3	7,1
Bideoa	1.225,6	66,5	-32,3	-1,8	-92,8	-5,2
DVD	1.428,3	77,5	11,6	0,6	23,7	1,1
Telefono mugikorra	1.708,4	92,7	2,9	0,1	12,2	0,4
INTERNET-ERABILTZAILEAK	908,7	49,3	35,5	1,9	65,1	3,4
Gizonezkoak	473,8	53,0	20,5	2,4	37,9	4,2
Emakumezkoak	434,9	45,9	14,9	1,5	27,2	2,7
Araba	130,5	49,7	6,2	2,2	16,7	6,0
Bizkaia	482,8	48,7	8,8	1,0	22,1	2,3
Gipuzkoa	295,4	50,2	20,5	3,4	26,3	4,2
15-24 urte	175,3	90,9	-2,2	-0,5	0,9	2,5
25-34 urte	242,7	75,4	-6,1	-0,5	-2,1	1,6
35-44 urte	243,0	69,7	25,1	7,1	34,8	9,3
45-54 urte	161,9	51,3	11,1	2,7	18,5	5,1
55-64 urte	67,7	25,8	2,6	1,1	8,3	2,9
65 urte edo gehiago	18,1	4,5	5,0	1,2	4,8	1,1
Ikasleak	145,4	96,3	-2,8	0,8	-2,0	0,6
Landunak	641,0	66,9	27,3	2,9	57,1	5,1
Ez-aktiboak eta langabeak	122,3	16,7	10,9	1,4	10,0	1,5
Etiketarik sartzen dira	749,2	82,5	47,7	2,2	79,9	3,2
Lantokitik sartzen dira	391,5	43,1	13,0	-0,2	22,1	-0,7
Ikastetxetik sartzen dira	104,4	11,5	-4,1	-0,9	-5,2	-1,5
Beste leku batetik sartzen dira	55,8	6,1	-29,9	-3,7	-4,6	-1,1
Euskaraz nabigatzen dute	189,1	20,8	4,7	-0,3	16,2	0,3
Gaztelaniaz nabigatzen dute	901,0	99,2	31,6	-0,4	65,0	0,1
Ingelesez nabigatzen dute	169,0	18,6	-9,9	-1,9	9,4	-0,3
Internet bidez erosi du	215,3	23,7	-24,1	-3,7	-22,6	-4,5
Azken konexioaren batez besteko iraupena.	45,6		4,5		-7,4	

* ALD., % P. = Aldea, ehuneko-puntutan

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tlf:+34-945-01 75 31 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-banku: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp